

Gure enpresako langileen lana hainbat eremutan sailkatuta egongo da.



Lehendabizi, pertsona bat publizitateaz arduratuko da. Tailerrean, bakarrik nagusiak (gu) egongo gara eta han administrazioa eramatearen arduradunak izango gara. Tailer bat edukitzeaz gain, denda fisiko bat izango dugu, non biltegia egongo den. Hemen, bi langile izango ditugu. Horretaz gain, etxera bidaltzeko agentzia bat kontratatuko dugu, eta enpresa hau SEUR izango da.

Publizitateaz arduratzen den pertsona, kartelak itsatsiko ditu herrietan. Gainera, webgunea kudeatuko du eta bezeroek web gunean egiten dituzten dudak argitzearen arduraduna izango da.

Tailerrean, hainbat ekintza beteko ditugu. Lehendabizi, gure produktuaren ekoizpena egingo dugu, ondoren dendaren bitartez edo on-line saltzeko. Gainera, administrazio-gunea tailerrean egongo da baita, eta hortik dena kontrolpean izatea ahalbidetuko digu: ekoizpena, produkzioa eta salmentak.

Dendan dagoen pertsona etortzen diren bezeroak zerbitzatuko eta informaztuko ditu. Dendaren ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00 eta 16:00-19:00
- Larunbatetan: 9:00-14:00



Azkenik produktua etxera bidaltzeko enpresa asteko 3 goizeetan (astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan) etorriko da dendara, bateriak hartuko ditu eta bezeroen etxera eramango ditu.